



HEZKUNTZAKO SAILBURU JAUNA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko osoko bilkurak, 2020ko azaroaren 18an eginiko bilkuran, orri-ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure kontsulta aztertu du (175/2020 zenbakiarekin erregistratu da), hain zuzen ere, EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa aitortzeko lege-aurreproiektuaren gainekoa (Erref.: DNCG_LEY_103336/20_07).

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Saiz Ruiz de Loizaga batzordekideak adierazi du batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:
Sabino Torre Díez jauna

BATZORDEBURUORDEA:
Xabier Unanue Ortega jauna.


BATZORDEKIDEAK:
M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea.
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.
Imanol Zubizarreta Arteche jauna.
Iñaki Calonge Crespo jauna.
Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea.

IDAZKARIA:
Jesús M^a Alonso Quilchano jauna.

171/2020 IRIZPENA


AURREKARIAK

1. 2020ko urriaren 15ean, batzordean sartu zen Hezkuntza sailburuaren egun bereko agindua; horren bidez, EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa aitortzeko lege-aurreproiektuaren kontsulta izapidea hasi zen.
2. Batzordeak jasotako espedientean, bidaltze-aginduez eta kontsultaren xede den aurreproiektuaren bertsioaz gain (2020ko urriaren 14koa), dokumentazio garrantzitsu hau jaso zen, kronologikoki antolatuta:
 - a) Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren (Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa) Batzorde Delegatuaren



txostena, 2019ko maiatzaren 10ean sinatua, EUNEIZ unibertsitatea aitortzeko espedienteari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari bidalia 2019ko abenduaren 2ko Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren idazkariaren ofizio bidez. Horrez gain, txosten horren eranskina (hurrengo azaroaren 19koa) ere jaso zen.

- b) Arauak EAEko ekintzaileengan eta ETEengan izango lukeen eraginari buruzko txostena, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak sinatua 2020ko otsailaren 6an.**
- c) Aurreproiektuaren genero-inpaktuari aurretiazko ebaluazioa (2020ko otsailaren 6koa).**
- d) Aurreproiektuaren justifikazio-memoria (2020ko otsailaren 6koa, baita ere).**
- e) Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, 2020ko otsailaren 6koa, aurreproiektua sortzeko prozedurari ekitea erabaki duena.**
- f) Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, 2020ko uztailaren 13koa, aurreproiektua aldeztu aurretik onesten duena. Ondoren, araua dago, egun berekoa.**
- g) Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren aurreproiektuari buruzko txostena, 2020ko uztailaren 24koa.**
- h) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren txostena, 2020ko uztailaren 24koa.**
- i) Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena, 2020ko abuztuaren 18koa.**
- j) Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren memoria, txosten juridikoa aztertzen duena eta oharrei erantzuten diena, 2020ko irailaren 2koa.**
- k) Aurreproiektuaren 2020ko irailaren 2ko bertsioa.**
- l) Generoari dagokionez, aurreproiektuak nabarmentzeko alderdirik ez duela justifikatzen duen txostena, hurrengo irailaren 8koa.**




- m) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren (aurrerantzean, Unibasq) txostena, aurreproiektuari buruzkoa (2020ko irailaren 9ko sinadura digitala duena).**
 - n) Emakumeen Euskal Erakundearen (Emakunde) txostena, irailaren 11koa.**
 - o) Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, irailaren 15koa.**
 - p) Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren memoria, aurreko txostenak aztertzen dituen eta oharrei erantzuten diena, irailaren 18koa.**
 - q) 2020ko irailaren 21eko aurreproiektuaren bertsioa.**
 - r) Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandakoa, 2020ko urriaren 2koa.**
 - s) Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren memoria, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak proposatutako aurreikuspena aurreproiektuan sartzea justifikatzen duena (urriaren 14koa).**
- 3. Ondoren, batzorde honetan (azaroaren 16ko sarrera-erregistroarekin), aurreko lerrokan aipatutako txostenen aurreko zenbait txosten jaso ziren, hauek: (i) Unibasqen txostena, Eusteiz 2018 SAK, EUNEIZ unibertsitatea aitortzeko aurkeztutako memoria ebaluatzen duena (2019ko apirilaren 4ko sinadura digitalarekin); (ii) Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren txostena, 2020ko urtarrilaren 31koa; eta (iii) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren txostena (2020ko urtarrilaren 31koa), eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak (2020ko urtarrilaren 14an), Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean, EHU), Mondragon Unibertsitateak (2020ko urtarrilaren 27an) eta Deustuko Unibertsitateak bidalitako proiektatutako arauari buruzko txostenak jasotzen dituen.**

LEGE-AURREPROIEKTUAREN XEDEA ETA DESKRIBAPENA


- 4. Irizpenaren eraginpean dagoen lege-aurreproiektuaren xedea da EUNEIZ unibertsitate pribatua aitortzea eta artikuluetan jasotako zenbait alderdi orokor arautzea.**



5. **Hitzaurrea, hamar artikulua, bi xedapen osagarri eta bi azken xedapen ditu.**
6. **Hitzaurrean, ekimenaren estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi-esparrua aipatzen da eta Eusteiz 2018 SA pertsona bakarreko sozietate anonimoak Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa den EUNEIZ unibertsitate pribatua aitortzeko egindako eskaera ere azaltzen da. Proiektuaren sustatzaileen bidez kotasuna eta unibertsitateko goimailako hezkuntza eskainiko den arloa (teknologia berriak eta kirol- eta osasun-zientziak) xedatzen dira, adierazitako konpromisoekin.**
7. **Era berean, hitzaurrean, unibertsitatea aitortzeko espedientean jasotako izapide batzuei buruzko datuak ere azaltzen dira.**
8. **Hitzaurrean, gainera, legearen edukia dago laburtuta; bere maila Unibertsitateen Lege Organikoan (abenduaren 21ko 6/2001) (aurrerantzean, ULO) xedatutakoari egokitzea; eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (aurrerantzean, APEL) (urriaren 1eko 39/2015) 129. artikuluan xedatutako printzipio gidari egokitzea, baita ere.**
9. **Proiektatutako arauaren 1. artikuluan, EUSTEIZ 2018 SA unibertsitate pribatu gisa aitortzen da, EUNEIZ Unibertsitatea izenarekin. Unibertsitate hori EAEn ezarriko da, eta unibertsitatea aitortzen duen legeak, bere antolamendu- eta funtzionamendu-arauek (Eusko Jaurlaritzak onetsi behar dituenak eta berariaz aitortuko dutenak unibertsitatearen jardueraren oinarria askatasun akademikoa dela) eta unibertsitateen arloko araudiak arautuko dute.**
10. **2. artikulua («Egitura»), unibertsitatea antolatuko den egitura-unitateei buruzkoa da. Hasieran, unibertsitateak Osasunaren Zientzien Fakultatea eta Teknologia Interaktibo Berrien Fakultatea izango ditu, eta bertan egingo dute graduako eta graduondoko titulu horiek lortzeko irakaskuntzen administrazio-kudeaketa eta antolaketa. Irakaskuntza horien izenak unibertsitatea martxan jartzeko dekretuan aldatu ahal izango direla aurreikusi da, betiere, ezarritako irizpideekin bat. Gainera, unibertsitate horretan zentro berriak aitortzeko eta irakaskuntzak ezartzeko, unibertsitateen arloan aplikatu beharreko araudia bete beharko da, beharrezko diren baliabideak eta bitartekoak daudela egiaztatu ondoren.**




11. **3. artikuluan, unibertsitatea martxan jartzeko baimenari buruzko arau orokorrak ezartzen dira. Baimen hori, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez eman beharko da, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, bereziki, aipatutako alorretan. Era berean, unibertsitateak hala proposatuta, ikasketa-planetako ikasturteak modu progresiboan ezartzea baimendu ahalko da dekretuaren bidez. Manu horretan, halaber, unibertsitateari emandako aitorpena iraungi daitekeen kasuak jaso dira: legea indarrean jarri eta lau urte igaro ondoren jarduerak martxan jartzeko baimenik ez eskatzea edo baldintzak betetzen ez direlako, baimena ukatzea.**
12. **4. artikuluan, ikasleek unibertsitatean ikasi ahal izateko bete beharreko irizpideak arautzen dira, eta, horretarako, alor horretan indarrean dagoen araudia aipatzen da. Hala, unibertsitateak, modu askean arautuko du ikasleen sarbidea eta ikasleek unibertsitatean ikasten jarraitzea, (edonola ere, merezimendu akademikoak lehenetsiko dira); eta bermatu egingo du unibertsitatean sartzeko eta bertan ikasten jarraitzeko eskubidea aitortzea, jaiotza, sexu, sexu-orientabide, erlijio edo bestelako baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatiko diskriminaziorik egin gabe.**
13. **Unibertsitatearen eta zentroen funtzionamendu-aldiaz 5. artikuluan xedatzen denaren arabera, ikasketak hasi dituzten ikasleek haiek aprobetxamendu akademiko normalarekin amaitzeko behar duten denboran bederen funtzionatu beharko du zentroak. Unibertsitatearen antolamendu- eta funtzionamendu-arauetan edo aplikatu beharreko bestelakoetan horri buruzko konpromiso zehatzik jasota ez dagoenez, gutxieneko denbora hori, ikasketa-planen iraungitze-araudian jasotako izango da.**
14. **6. artikulua, unibertsitateak eskaini beharreko bermeei buruzkoa da, alegia, egoki jarduteko baliabide propioak izatea, eta horiek EAEko Unibertsitate Sistemaren helburuen esparruan ezartzea eta garatzea, eta Eusko Jaurlaritzak unibertsitatea martxan jartzeko baimena ematen duen dekretuan ezartzen dituenak, manuan adierazitako helburuetarako.**
15. **7. artikuluan, unibertsitatearen ikuskaritza-araubidea arautzen da (albo batera utzi gabe goi-ikuskaritza eta estatuaren eskumeneko bestelako ahalmenak); ikuskaritza hori, unibertsitateen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak egingo du (aplikatu beharreko arauak betetzeari eta onartutako betebeharrak betetzeari dagokionez), eta, horretarako, unibertsitateak organo eskudunekin lan egin beharko du**



ikuskaritzan, eta sail horri jakinarazi beharko dizkio bere antolamendu-eta funtzionamendu-arauetan, ondare-egoeran, beken araubide espezifikoan eta ikerketarako eta azterketarako laguntzetan egindako aldaketak. Era berean, sail horrek unibertsitateari eskatu ahal izango dio ikuskaritzak egitea, eta horien maiztasuna ez da urtebete baino gutxiagokoa izango. Eta egiaztapen horien ondorioz, sailak ondorioztatzen badu unibertsitateak ez dituela arauak edo aitorpen-eskaeran bere gain hartutako konpromisoak betetzen, adierazitako epean alderdi horiek erregularizatzeko eskaera egingo dio. Epe hori igaro eta eskakizunari erantzuten ez bazaio, unibertsitateak eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak entzunaldia eskaini ondoren, Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari emango dio horri buruzko informazioa, beharrezkoa bada, aitorpena baliogabetzeko.

16. **8. artikulua**ren izenburua «Titulartasuna eskualdatzea edo lagatzea» da, eta bertan xedatuta dago, unibertsitateen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinarazi beharko zaizkiola unibertsitatearen izaera juridikoa edo egitura aldatzen duten egintza edo negozio juridikoak edo pertsona juridikoen edo fisikoen titulartasuna eskualdatzekoak edo lagatzekoak; informazio hori, edonola ere, ekimen horiek guztiak gauzatu aurretik eman beharko da. Kasu horietan, gainera, ULOn xedatutakoa bete beharko da. Unibertsitatearen titulartasuna aldatzen bada, titulartasuna eskuratzen duena, lehengo pertsona fisiko edo juridiko titularren eskubideetan eta betebeharretan subrogatuko da. Manu horretan jasota dago, halaber, unibertsitatea kokatuta dagoen lursailak eta eraikinak erabilera horretarako izango direla epe mugagabea, EAEk jarduera eteteko edo kokapena eta instalazioak aldatzeko baimena ematen ez duen bitartean.
17. **9. artikulua**k «Jardueren memoria» izenburua du. Horren arabera, unibertsitateak irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren memoria egin beharko du urtean behin. Eusko Legebiltzarrari, unibertsitateen arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari bidaliko zaio aipatu memoria.
18. **10. artikuluan**, «Jardueren ebaluazioa» izenekoan, unibertsitatearen jarduerak Unibasqek ebaluatuko dituela xedatzen da, kalitate-agentzia hori arautzen duen arauarekin bat.
19. **Arauaren azken zatian**, xedapen gehigarrien bidez, unibertsitateari egitasmoak sustatzeko agintzen zaio arlo hauetan: emakumeen eta



gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea (lehenengo xedapen gehigarria); eta euskal kultura-ondarearen eta, bereziki, euskararen defentsa, ikerkuntza eta sustapena bultzatzea (bigarren xedapen gehigarria).

20. **Azken xedapenetan hauxe ezartzen da: lehenengoan, unibertsitateen alorreko sailaren titularrak baimena izatea proiektatutako legean xedatutakoa aplikatzera bideratutako aginduak eman ahal izateko; eta, bigarrenean, araua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean jartzea.**

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

21. **Irizpen hau, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1. a) artikuluekin bat eman da; artikuluek, batzordearen kontsulta-funtzioaren eremutzat jotzen ditu lege-aurreproiektuak, edozein dela ere haien arloa eta xedea, betiere, biltzen dituen salbuespenen barruan sartuta ez badaude, eta honako hau ez da horietako bat.**

KONTUAN HARTZEKOAK

I EGITEKO PROZEDURA

22. **Irizpenaren mende jarritako aurreproiektuaren idazketa-prozedura aztertzean, kontuan hartu behar da Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen (aurrerantzean, XOEPL) eskakizunak arau-produktuaren izaerarekin bat etorri behar direla. Kasu honetan, unibertsitate pribatu bat aitortzeko lege berezia da, araudi espezifiko duena, eta bertan xedatzen dira, baita ere, aitorten baldintza formalak, aurrerago ikusiko dugun moduan.**
23. **Horrez gain, batzorde hau sortu zenetik, behin eta berriz azpimarratu da, kasu bakoitzean batzordeak duen kontsulta-funtzioaren eta xede zehatzaren arabera, bere esku-hartzearen irismena ezberdina izango dela (39/1999 irizpena). Eta, zehazki, ekimen legegileen berezitasunak aztertu ditugu araubide-ekimenekin alderatuz. Azken horien oinarria eta muga eratortzen diren legeak dira, eta, alderantziz, lege-aurreproiektuek ez dute lotura estu hori, maiatzaren 24ko Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 Epaia (aurrerantzean, KAE) dioenaren arabera.**



24. **Ekimen legegileetan, legegileak «konfigurazio askatasuna» delakoa izan ohi du, eta bere jarduna balorazio politikoen arabera bideratzen da. Horregatik, prozedura aztertzean, kontuan hartu behar dugu lege-aurreproiektuetan «zuzenbidea sortzeko modu» gehiago dagoela aukeran. Ondorioz, gure esku-hartzea proiektatutako araudia zuzena izateko da, hau da, araudia arrazoizkoa izateko (alegia, helburuak betetzeko baliagarria eta arautu nahi den errealitatera behar bezala egokitua izatea).**
25. **Kontsulta-funtzioaren zehaztasunak, hala ere, ez du oztopatzen batzordeak oharrak egitea aurreproiektuaren eta memoriaren idazketa-prozeduraz, organo kontsultagilearekin lankidetzan aritzeko, betiere, agiriok hobetzeko xedearekin. Hala ere, ez da ahaztu behar gure balorazioa ez dela alderdi juridikoan barnatzen, eta gure balorazioarekin ezin dela objekziorik funtsatu inola ere arau-produktuaren konstituzionaltasunaz.**
26. **Irizpenaren mende jarritako testua sortzeko prozedurari dagokionez, hasieratik zehaztu nahi dugu, bidalitako txostenean jasota zeudela Eusteiz 2018 SAU erakunde pribatuak unibertsitatearen aitorpenerako aurkeztutako eskaerari atxikitako agiriak (behar zen dokumentazioarekin), baina horiek, aintzatespen-prozeduraren barne egonda ere, ez zaizkio helarazi batzorde honi. Horregatik, prozedurazko analisia (eta analisi sakona) dokumentazio hori eskuragarri izan gabe egin dugu.**
27. **Prozeduraren hasiera-agindua eman aurretik, eskaini nahi diren ikasketak eman ahal izateko unibertsitatea sortzearen egokitasuna baloratzeari eta bideragarritasuna baloratzeari buruzko agiriak daude jasota (horietako batzuk, unibertsitateen arloan espezializatutako organoen txostenak dira).**
28. **Agirien bloke horri atxiki zaio Unibasqen Ebaluazio Batzordearen hasierako txostena (2019ko apirilaren 4ko sinadura elektronikoa duena), Eusteiz 2018 SAUK EUNEIZ unibertsitatea aitortzeko aurkeztutako memoriari buruzkoa.**
29. **Unibasqek (ekainaren 28ko 13/2012 Legearen bitartez araututakoak) azaldu zuen Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzen dituen maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuaren 6.2. artikulua a) apartatuan xedatzen denari jarraikiz**



jarduten duela. Eta, baieztatu duenaren arabera, modu horretan jarduten du EAEn unibertsitate kalitatearen kanpoko ebaluazioa egiteko organoa delako, eta organo horri dagokio unibertsitate berri bat sortzeko helburuarekin aurkeztutako «Titulazioen garapen-plana» delakoa ebaluatzea (aipatu dugun 420/2015 Errege Dekretuaren manua, horri buruzkoa da).

30. **Unibasqen Ebaluazio Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak 2019ko urtarrilaren 14an bidalitako informazioa kontuan hartuz, 420/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutako lehenengo sei baldintzak aztertu zituen 1etik 6ra bitarte zenbakitutako dimentsioetan.**
31. **Aztertutako dimentsio horiek, 420/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutako betekizunei jarraikiz, honela dute izena: a) «Titulazio ofizialei dagokienez, gutxieneko eskaintza behintzat izatea». b) «Ikerketa programazio egokia izatea». c) «Prestakuntza egokia duten irakasle-ikertzaileen kopuru nahikoa izatea». d) «Eginkizunak betetzeko, instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea». e) «Antolamendu eta egitura egokia izatea». f) «Zerbitzua eskaintzeari eta jardueri eutsiko zaiela bermatzea, 9. artikuluan araututakoaren arabera». Dimentsio horietako bakoitzaren edukia formulatu, eta horien balorazio arrazoitua egiten du.**
32. **Eusteiz 2018 SAUK aurkeztutako memoria aztertuta, Unibasqek, txostenaren kontrako iritzia eman zuen, izan ere, bere ustez, proposamenak ez ditu egoki betetzen 420/2015 Errege Dekretuan eta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legean (aurrerantzean, EUSL) xedatutako baldintzak. Zehazki, 5. eta 6. dimentsioak bai, horiek egoki betetzen direla uste zuen. Baina, alderantziz, gainerako apartatuen balorazioa negatiboa izan zen.**
33. **Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren Unibertsitateetako Idazkaritza Nagusiaren Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren Batzorde Eskuordetuak lehenengo txostena egin zuen 2019ko maiatzaren 10ean (aurrerago aipamen gehiago dago, adibidez, 2019ko ekainaren 5ekoa), «sozietate sustatzaileak EUNEIZ unibertsitatea sortzeko eta aitortzeko aurkeztutako bigarren proiektua» aztergai zuela. Bertan adierazten da, sozietate sustatzailearen lehenengo proiektuak, 2017ko azaroaren 15ekoak, Unibasqen eta Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren zerbitzu teknikoaren kontrako txostena jaso zuela, eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia**



Orokorrak ez zuela baloraziorik egin, sozietate horrek eskaria atzera bota zuelako.

34. **Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren txosten hori honako apartatuetan egituratuta dago, eta 420/2015 Errege Dekretuan aurreikusitako inguruabarretan sakontzen du:**

a) «Erakunde sustatzailea»: Eusteiz 2018 SA, pertsona bakarreko sozietatea, egoitza soziala Gasteizen duena. Osaeren % 90 ULENI SL merkataritza-sozietateari dagokio (partaidetzen % 90 du), eta gainerako % 10a Saski Baskonia SADi lagata dago (merkataritza-sozietate horrek berak). Bertan azpimarratzen denez, Kataluniako bi unibertsitate-eskolatako irakasleen eta ikertzaileen esperientzia akademiko handia eskainiko dute. Eskola horietatik bat Gironako eta Tarragonako unibertsitateari atxikita dago (EUSES-UdG/EUSES-URV), eta bestea, Bartzelonako unibertsitateari (ENTI-UB). Horiek jotzen ditu proiektuaren sustatzailetzat. Era berean, Gasteizko bi kirol-klub nagusiak, Saski Baskonia SAD eta Deportivo Alavés, proiektuaren sustapenean inplikatu direla nabarmentzen da memorian.

b) «Eredu akademikoa eta irakaskuntza-eskaintza»: graduak, gradu bikoitzak eta masterrak eskaintzeaz gain, bestelako irakaskuntzak eta ikastaro osagarriak, doktorego-programak eta masterreko titulu propioak eskaintzea aurreikusten da, beste batzuen artean. Horrez gain, «graduen eta masterren eskaintza akademikoa, hein batean, bat dator aurretik aipatutako Kataluniako zentro atxiki horiek eskaintzen dutenarekin, eta haiek emango diote sostengua proiektu akademikoari».

c) «Ikerketa-proiektua»: unibertsitatearen ikerketa-jardueraren programazioari buruzkoa da. Hori egiteko, fundazio bat sortuko da etorkizunean (jarduera akademikoak hasi eta bigarren urtetik aurrera).

d) «Ikasleen eta irakasleen aurreikuspena».

e) «Kokapena eta instalazioak».

f) «Antolakuntza- eta funtzionamendu-arauak».


g) «Azterketa ekonomikoa eta finantza-bermeak».

h) «Ondorioa»: Oro har, sozietate sustatzaileak aurkeztutako proiektuak bete egiten ditu 420/2015 Errege Dekretuaren eskakizunak, eta,



beraz, bere Batzorde Eskuordetuaren bidez, hau da, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren bitartez, aldeko txostena eman da. Hala ere, zehaztuta dago, sail eskudunak egiaztatu egin beharko duela, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak detektatutako bi akats hauek zuzentzen direla:

- 1) Aurkeztutako irakasleen datuekin, ezin da kalkulatu lanaldi osoan jardungo luketen irakasleen ehunekoa. Horregatik, jarduera akademikoa hasi aurretik, egiaztatu egin beharko da, gutxienez, irakasleen % 60ak lanaldi osoan lan egiten duela.**
 - 2) 2021/2022 ikasturtetik aurrera unibertsitatea kokatuko den eraikinaren egoerari buruzko eta obrak atzeratuz gero ezarriko den prebentzioari buruzko informaziorik ez dagoenez, erakunde sustatzailea behartuta egongo da unibertsitate berriak funtzionatzen jarraitzeko espazio egokiak bermatzera, egun horretatik aurrera.**
- 35. Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek, arau-ekimenaren sustatzaileak hala eskatuta, aipatu Unibasqen txostenarekin (2019ko apirilekoa) bat ez datorren alderdien kontrastea egin du, eta lehenagoko txostenari atxiki dio (2019ko azaroaren 19koa). Eranskin horretan Unibasqen metodologia aplikatu zen (unibertsitatea aitortzeko baldintzak sei dimentsiotan banatuz), eta Unibasqen txostenean balorazio negatiboa jaso zuten arloen analisi konparatzailea egin zen, 420/2015 Errege Dekretuaren baldintzak kontuan hartuz.**
- 36. Azterketa horretatik, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek hauxe ondorioztatu zuen: «Unibasqen txostenaren arrazoiak ez dira aski sendoak honakoa ondorioztatzeko: EUNEIZ unibertsitate pribatu gisa aitortzeko proiektuak ez ditu betetzen Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu, baimendu eta egiaztatzen dituen maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuan xedatutako baldintzak».**
- 37. Ondoren, 2020ko irailaren 15ean, txostena aurkeztu zuen Unibasqek (zuzendari ohiak irailaren 9an elektronikoki sinatua) helburu honekin: «Organo eskatzaileari informazioa ematea, agentziari lege-proiektuan egiten zaizkion aipamenen eta agintzen zaizkion egitekoen inguruan». Hori guztia, Unibasqi buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 3. artikulua bidez**




esleitutako eskumena baliatuz (aurretiaz, 2019ko apirilaren 4an, kontrako txostena eman zen).

38. **Unibasqen txosten horretan, hauxe ondorioztatu zuten: «EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate gisa aitortzeko lege-proiektuan, modu egokian jasota daude zeregin orokorreki eta zehatzei buruzko aipamenak; horiek, zuzenbidearekin bat eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren testuinguruan, agentziaren jarduketa-eremuaren barnekoak dira, eta EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa aitortzeko lege-proiektuari buruzko aldeko txostena eman da».**
39. **Aurretiazko jarduketa horietan, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak ere txostena egin zuen (2020ko urtarrilaren 9an, Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoko Koordinazio Batzordearekin egindako bileran), Euskal Unibertsitate Sistemaren koordinazio-organo eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa (unibertsitateei dagokienez), Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duen azaroaren 20ko 204/2007 Dekretuaren bidez garatzen den EUSLren 65. artikulua arabera.**
40. **Koordinazio Kontseilua EUSLren 68. artikulua bidez eratzen da, unibertsitate-sistema publikoaren (EHU bertan ordezkatuta dago) xedeak eta helburuak zehazteko koordinazio-, aholkularitza- eta partaidetza-organo gisa. Organo hori arautzen duen azaroaren 17ko 314/1998 Dekretuaren 2.1.f) artikuluan, bere zereginen barnean jasota dago informazioa ematea unibertsitate berriak sortzeko eta aitortzeko prozeduretan.**
41. **Batzorde horien bien txostenetan, unibertsitatea aitortzeko hasitako espedienteko prozedura-mugarriak azaltzen dira. Unibasqek eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek egindako txostenen ondoren, 2019ko abenduaren 5ean, Eusteiz 2018 Saren administratzaile bakarraren idazkia erregistratu zen, *EUNEIZ unibertsitate pribatua aitortzeko memoriaren informazio osagarria*. Agiri horrek, lotura du «Unibasqek eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorren Batzorde Eskuordetuak aipatutako funsgabetasunekin, eta, hala badagokio, Batzorde Eskuordetuaren txostenean adierazitako funsgabetasunak zuzendu direla egiaztatzeko erabilgarria izango da, jarduera akademikoa hasi aurretik».**




42. **Txosten horiek aho batez onetsi ziren, eta horietan daude jasota, baita ere, araudi-aurrekariak eta unibertsitatearen proiektuaren oinarritzko edukia, eskaini nahi den hezkuntza azalduz.**
43. **Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren txostenean, eranskin gisa jasota daude organoko kide batzuk egindako oharra jasotzen dituzten agiriak: EHUK, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Arabako Foru Aldundiak, hain zuzen ere.**
44. **EHU, Mondragon Unibertsitatea bezala, EAEn irabazi-asmoa duen unibertsitate pribatu bat ezartzeko aukera aztertzen ari da, eta hori «erantzukizun handiko kontua da; izan ere, egungo bi unibertsitate pribatuak (Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) irabazi-asmorik gabeko unibertsitateak dira, eta zerbitzua ematen diote EAEko gizarteari, unibertsitate publiko bakarrak egiten duen bezalaxe». Azpimarratzen duenez, «proiektuak epe luzerako bideragarritasuna izan behar du, ez bi urtekoa, eta ikerkuntzarako zimendu argiak ere ezarri behar ditu, unibertsitateak ikerkuntzari lotuta egon behar baitu, ezinbestean». Gainera, nabarmentzen du ikerketa- eta irakaskuntza-gaitasuna ere kontuan hartu behar direla unibertsitate baten aitorpenean, 420/2015 Errege Dekretuaren baldintzak teknikoki betetzen direla egiaztatzeaz gain, eta, kasu honetan, Unibasqen 2019ko apirileko txostenean hori zalantzan jarri zen, eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorra oharra egin zituen horri buruz. Gainera, dioenez, «laneratzeari buruzko datuek erakusten dute merkatua ez dela gai EAEko unibertsitate-sistemako unibertsitateek esparru horretan sortzen duten eskulan kualifikatu guztia xurgatzeko egoera ekonomikoa onean».**
45. **Deustuko Unibertsitateak positibotzat jotzen du «zientzia eta berrikuntzaren EAEko ekosisteman eragile berri bat egotea (...), batez ere gizarte-ekimenaren dinamismoaren emaitza denean». Eta gogorarazi du, unibertsitate berria ebaluatzeko garaian, gainerako sistemako eragile guztiekin egiten den moduan, «bere balio-ekarpena ikusi behar da akademiaren hiru maila edo xede hauetan: goi-mailako prestakuntza, gizarte-inpaktuko ezagutza berria sortzea eta transferitzea eta gizarte-erantzukizunez jokatzeko». Eta, azkenik, dioenez, «bere eskaintza eta prestakuntza-programak, ikerkuntzako *know how*-ak eta irakasle eta ikertzaileen gaitasunek, logikoa denez, sistemako gainerako unibertsitateetan aplikatzen diren zorrotasun- eta bikaintasun-estandarrek bete beharko dituztela».**



46. **Arabako Foru Aldundiaren alegazioen idazkiaren arabera, «Gasteizen kalitatezko unibertsitate-eskaintza osatzeko duen garrantzitik haratago, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak aztertu duen proiektua aukera paregabea da aurrera egiteko, izan ere, gure lurraldeko egungo eta etorkizuneko garapenari ekarpen sendoa egiten dio, eta laguntza funtsezkoa da balio estrategiko altuko arloetan talentua sustatzeko. Ondorioz, kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzen du, eta inguruko ekonomia- eta industria-sektoreen balio-katean gehikuntzak eragin».**
47. **Aurretiazko izapide horiekin, Hezkuntzako sailburuak, 2020ko otsailaren 6an, aurreproiektua egiten hasteko prozedurari hasiera-agindua eman zuen, EUSLren 62.3.a) artikulua bidez jasotako eskumenekin bat. Aginduan, ekimenaren arau-esparrua eta 2020ko otsailaren 6an xedatu zen arte egin ziren izapideak daude zehaztuta, eta, horrez gain, prozeduraren hasiera agintzea xedatzen du, betiere, XOEPLn xedatutakoak betez.**
48. **Data horretakoa da, halaber, aurreproiektuaren aurretiazko onespengindua, eta, lehenengo bertsioa onetsi zen eta prozedura bukatzeko beharrezko diren instrukzio-egintzekin jarraitzeko agindua eman zen.**
49. **Espedienteari aurreproiektuaren justifikazio-memoria bat atxiki zitzaion (aipatutako aginduen egun berekoa), eta bertan jasota daude araudi-aurrekariak, proposamenaren justifikazioa eta justifikazio ekonomikoa.**
50. **Proposamena justifikatzeko apartatuan, egindako prozedura-izapideak eta publikoak ez diren unibertsitateak aitortzeko askatasuna aipatzen dira bakarrik: «Hezkuntza Sailean jaso dugu Euskal Autonomia Erkidegoan EUNEIZ unibertsitate pribatua sortzea aitortzeko eskaera, unibertsitate pribatuak sortzeko askatasun-eskubidea baliatuz, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 5.1. artikulua eta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 108.1. artikulua arabera. Eskaerarekin batera, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzan espediente izapidetzen hasteko beharrezko den dokumentazio guztia aurkeztu da». Eta hortik ondorioztatu da, «Hezkuntza Sailak Unibasqen, Estatuko Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiko Batzorde Eskuordetuaren, Unibertsitate Kontseiluaren eta Unibertsitate Publikoko Irakaskuntzaren Koordinazio Kontseiluaren aurretiazko txostenak jaso ondoren, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 62.3.a. artikulua betez, lege-proiektua sortu eta izapidetu behar duela, Eusko Legebiltzarrera eramateko».**



51. **Hala ere, memoria horretan ez dago jasota unibertsitatea aitortzeko eskaeraren datu zehatzik, ezta eskaeraren espedientean aipatu erakunde eskatzailearen dokumentaziorik ere (aurretik aipatu den moduan, ez dago espedientean jasota).**
52. **Aurkeztutako agirietan eta aurretiazko txostenetan ez dago berariaz jasota, ezta ere, unibertsitate gisa aitortzeko baldintzak betetzearen gaineko balorazioa, eta hizpide dugunaren moduko aurreproiektuetan beti egon beharko litzateke justifikazio-memorian. Ez da organo informatzaileen balorazioetara berariaz jotzen (edo haiekin bat etortzen), nahiz eta balorazio horiek organo sustatzaileak egin beharreko balorazio teknikoa ordeztu dezaketen, eta balorazio hori egin du egin ere sustatzaileak, arauaren bideragarritasun eta egokitasuna funtsezko.**
53. **Horrez gain, proiektatutako arauaren eduki osagarri arautzaileari buruzko azalpena ere eskatu ahalko litzaioke (unibertsitatea berariaz aitortzetik haratago). Azalpen horretan, unibertsitateari ezarritako konpromisoak edo betebeharrak agertu beharko lirateke, eta aplikatu beharreko araudi espezifikoan ez dago erreferentziako aurrekaririk alor horretan.**
54. **Aurreikuspen ekonomikoari dagokionez, memoriaren arabera, «unibertsitatea aitortzeko prozeduraren hasieran ekimenaren sustatzaileek bidalitako dokumentazioan jasotakoaren arabera, EUNEIZ unibertsitate pribatuak nortasun juridiko propioa, jarduteko gaitasun osoa eta ondare propioa dituela, eta autonomia-araubidean jarduten duela, legeekin eta bere aitorten-legearekin bat eginez, eta ez dela irabazi-asmorik gabeko erakundea». Eta hauxe dago jasota bukaeran: «Beraz, Hezkuntza Sailak, ez du unibertsitatea finantzatzeko aurrekontu-partidarik zuzkituko eta kostu ekonomiko guztia EUNEIZ unibertsitatearen kargura izango da».**
55. **Mezu hori memoria ekonomikoan ere jasota dago. Horrez gain, inpaktu ekonomikoa duten aurreproiektu-manuak errepasatzen dira, edonola ere, unibertsitatearen kargura izango direnak; eta, aipatzen da, orokorrean, aplikatu beharreko araudiko betekizun guztiak betetzen direla, ñabardura honekin: «Jarduerak hasteko baimena lortu aurretik gauzatu beharko da». Hau da, inpaktu ekonomikoaren egiaztapena (eta eskuragarri dauden baliabideen gaineko konpromisoak betetzearena) unibertsitatearen funtzionamendu eta jardueren hasiera-baimena eskatzeko unera atzeratzen da, ekimena hasi duen sailak ez baitu halakorik egin, ezta horri buruzko daturik eman ere.**




56. **Generoaren arabera inaktuaren aurretiazko ebaluazioari dagokionez (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan aurreikusita dagoena), nahiz eta sail proposatzaileak aurretiazko ebaluazioaren galdetegia bete (2020ko otsailaren 6an), ondoren, txosten bat gehitu zuen (2020ko irailaren 8koa), genero-ikuspegitik alderdi azpimarragarriak ez duela justifikatuz, eta hori egiaztatu zuen Emakundek.**
57. **Sail sustatzailean gauzatutako hasierako fase horretakoa da, halaber, sail horretako aholkularitza juridikoak egindako txosten juridikoa (XOEPL, 7.3. artikulua). Bertan, prestatze-prozeduran beharrezkoak diren izapideak aipatzen dira, hala nola araua eta bere araudi-esparrua ematearekin baliatzen den eskumena, baita edukia ere. Unibertsitatea aitortzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa ere aipatzen da, aplikatu beharreko araudiarekin bat eginez. Bukatzeko, aurreproiektuaren aldeko balorazioa egiten da.**
58. **Horrez gain, hasierako fase horretan, aurreproiektuak enpresan duen inaktuari buruzko txostena egin da, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. EAEko ekintzaileengan eta ETEengan eragina izango duten unibertsitatearen jarduketak azaltzen ditu. Eta lege horren 4. artikuluan EAEko unibertsitate sistemari buruz zerrendatzen diren helburuak aipatzen ditu, baina ez du azaltzen nola lortuko diren aztertutako arauaren bitartez.**
59. **Bigarren fasean, entzunaldi- eta partaidetza-izapidearen prozedura hasteari buruzkoan (XOEPL, 8.1. artikulua), egiaztatu da eraginpeko sektoreak aurretik aipatutako kide anitzeko organoen bidez esku hartu duela (alegazio espezifikoak egin dituzte EHUK, EAEko unibertsitate pribatuak eta Arabako Foru Aldundiak, beste batzuen artean). Horri dagokionez, organo jakin batzuek gai edo sektorean duten kualifikazioaren arabera esku hartzea arauz aurrezartzeari dagokionez, aurrezartze hori proiektatutako erregulazioan arrazionaltasuna ziurtatzera ere bideratuta dago (izan ere, organo bakoitzak bere «esparruan» duen iritziak kualifikazio espezifiko bat du).**
60. **Hala, zenbait txostenetan egindako oharak baloratzen dituen organo proposatzailearen memoria batean (2020ko irailaren 18koan), kide anitzeko organoen bidez entzunaldia egiteko modua justifikatzen da: Euskadiko Unibertsitate Kontseiluan ordezkaturik daude Eusko**



Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, EAEko hiru unibertsitateak, Euskadiko Eskola Kontseilua, hiru foru-aldundiak, Eudel (EAEko udalen elkartea) eta Euskal Enpresarien Konfederakuntza (Confebask); eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kide dira, baita ere, EHU eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak, ikasleak eta EHUKo Gizarte Kontseilua.

61. **Jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez, organo proposatzaileak 2017ko abenduaren 12ko gobernu-kontseiluaren akordioa aipatu du (horren bitartez onetsi ziren xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeko jarraibideak) izapidetze-salbuespenei dagokienez; bertan azpimarratzen da, baita ere, legearen aurreproiektuan ez dela arautzen hirugarrenak behartzen dituzten alorren gaineko alderdirik, unibertsitate baten sorrera aitortzea denez helburua; horrez gain, eraginpeko agenteek aurreproiektuari buruzko informazioa jaso dute ordezkatuta dauden organoetan parte hartzeagatik; eta, gainera, azpimarratu dute aurreproiektua *Legesarea* lankidetzeta-espazioan eskuragarri dagoela 2020ko otsailaren 2az geroztik.**
62. **Prozedurako txostenei dagokienez, aurretik aipatutakoez gain (Unibasqena, Unibertsitate Politikako Organo Nagusiarena, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluarena eta Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluarena, enpresaren inpaktu-txostenarekin eta Aholkularitza Juridikoko txostenarekin batera), Emakunderen (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legean aurreikusitakoa -aurrerantzean, EGBL-), Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren (Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuarekin bat eginez) eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren (aurreikusitako ekonomia- eta araudi-kontrola egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia- eta kontabilitate-kontrolako ekainaren 30eko 14/1994 Legean aginduzko gisa jasota dagoena) txostenak aipatu behar dira.**
63. **Emakundek bere txostenean egiaztatu zuen ez dela genero-inpaktuari buruzko txostena egiteko eskatu behar, eta, era berean, araua idazteko iradokizunak egin zituen.**



64. **Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak bi ikuspuntutatik eman du irizpena: hizkuntza-araudia betetzearen ikuspuntutik eta euskararen erabileraren normalizazioan daukan eraginaren ikuspuntutik (ez du halakorik sumatu).**
65. **Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere txostenean adierazi zuen, ekimenak ez duela eraginik EAE-ko ogasun nagusiaren alorretan, aztertutako proiektuak ez duela giza baliabide edo baliabide material gehiago behar, eta ez duela sortzen eskuragarri dauden aurrekontu-baliabide arruntez bestelako finantzaketa beharko lukeen betebeharrak ekonomiko zuzenik EAEko administrazioarentzat. Beraz, «hasiera batean, euskal autonomia-erkidegoko administrazio orokorraren aurrekontuetan, zehazki, gastuetan, ez duela aurrekontu-eragin zuzen eta berehalakorik». Era berean, diru-sarreretan ere ez da eraginik sumatu.**
66. **XOEPLn 10.2. artikuluan jasotako betekizunei erantzuten dien ebazpen-memoriarik ere ez dago. Organo ekintzaileak zenbait memoria egin ditu prozeduran zehar, eta, horietan, prozeduran esku hartu duten agenteen alegazioak baloratu ditu, kasu bakoitzean, onespena edo ezespena arrazoituz.**

II ESKUMENAK ETA ARAU-ESPARRUA

67. **EAEko Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan xedatuta dago «Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa dela irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera garatzen duten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».**
68. **Aurreproiektua Espainiako Konstituzioaren 27.1. artikulua betez izapidetzen da, bertan xedatuta baitaude hezkuntza-eskubidea eta irakaskuntza-askatasunerako eskubidea. 27. artikulua 6. zenbakian, pertsona fisiko eta juridikoei aitortzen zaie ikastetxeak sortzeko askatasuna, betiere konstituzio-printzipioen barruan; eta 10. lerrokan, unibertsitateen autonomia da hizpide, legeak ezarritako baldintzetan.**
69. **Unibertsitate-irakaskuntzaren alorreko eskumen-banaketa, ondorioz, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarena ez bezalakoa da: estatuaren**



eta autonomia-erkidegoaren arteko eskumen-banaketatik eratorritako ohiko botere-banaketarekin batera, gure azterketarako elementu espezifikoa eta garrantzitsua den ezaugarri bat dago, hau da, unibertsitateen autonomia, Espainiako Konstituzioaren 27.10. artikuluan aitortuta dagoena.


70. **Berezitasun horren arabera, EAEk EAEko Autonomia Estatutuaren (aurrerantzean, Autonomia Estatutua) 16. artikulua bidez bere gain hartzen dituen hezkuntza-eskumenak mugatuta daude unibertsitate-irakaskuntzaren arloan, hain zuzen ere, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30. artikulua estatuari ematen dizkion eskumena (eskumen eskusiboa, 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak dagokienez), eta, unibertsitate-autonomiaren barne egoteagatik, unibertsitateei dagozkienak dira mugak (48/2003 Irizpenean xehe aztertutako, eta hemen aztertutako eman, nola eragiten dioten Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan eta hura garatzen duten lege organikoetan xedatutakoak Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan xedatutako eskumen autonomikoari).**
71. **Espainiako Konstituzioaren 149.1.30. artikuluan oinarrituz, estatuak, abenduaren 21ko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa (ULO) onetsi zuen (ondoren, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikaren bitartez aldatu zena), eta lege hori da alor horretako estatuko oinarritzko araudia, eta, gainera, unibertsitate-autonomiaren ahalmen multzoa zehazten du.**
72. **Aurreproiektuaren alor materialean, ULOk unibertsitate pribatuak aitortzeko berariazko baimena ematen dio unibertsitateek kokatuko diren lurralde-eremuko autonomia-erkidegoko Legegintza Batzarrari (kasu honetan, Eusko Legebiltzarrari), eta lege bat sortu beharko du horretarako (4.1.a. artikulua). Hala ere, estatuari eskumen bera aitortzen dio (estatuak Gorte Nagusien bitartez jarduten du), baina, kasu horretan, eskumen hori unibertsitatea ezarri beharreko lurralde-eremuko autonomia-erkidegoaren gobernu-kontseiluarekin batera gauzatu behar da (4.1. artikulua b) apartatua).**
73. **Uztailaren 11ko 141/2013 KAEn, unibertsitate-autonomia baliatzeko modua eta unibertsitate pribatuak sortzearekin duen lotura azaltzen dira:**

223/2012 (6. OJ) KAEn, orain aztertutako dugunaren berdina zen aurkaratze-arrazoi bat baztertu genuen. Hala, ekainaren 6ko 106/1990



(6. OJ) KAEren arabera, «autonomiaren xedea da askatasun akademikoa babestea, hau da, kanpoko esku-hartzeen aurrean irakaskuntza-, azterketa- eta ikerketa-askatasuna aldarrikatzea, betiere zientzia-askatasuna bermatuta gera dadin, bai modu indibidualean bai instituzionalean, alegia, unibertsitateei dagokien horretan. Unibertsitate-autonomia “legean ezarritako terminoen arabera” aintzatesten den konstituzio-aginduz, legegileari dagokio autonomia hori zehaztea eta garatzea, unibertsitateei xedatuz eta aitortuz askatasun akademikoa bermatzen duten eskumenak edo (...) askatasun intelektualeko espazioa bermatzen duten eskumenak emanez, horiek gabe ez baita posible unibertsitatearen egiteko funtsezko eta berezkoa eraginkortasun osoz gauzatzea, hots, “zientzia, teknika eta kultura sortzea, garatzea, transmititzea eta kritikatzeta (Unibertsitateen Erreformatarako Lege Organikoaren 1.2. a) artikulua)”». Epai berean baieztatu genuenez, «unibertsitate pribatuak sortzea eta horien araubide juridikoa ezartzea ez da unibertsitate-autonomiaren adierazpen, ez behintzat Espainiako Konstituzioaren 27.10. artikuluan xedatzen denarena, baizik eta, oinarrizko arauaren 27.6. artikuluan ezarritakoarena, izan ere, «persona fisikoei eta juridikoei ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen die, konstituzio-printzipioak errespetatzen diren heinean»; «ondorioz, Unibertsitateen Lege Organikoaren 5.1. artikuluan xedatzen denaren arabera, ikastetxe horiek sortzeko, “estatuak eta autonomia-erkidegoek dagozkien eskumenen arloan xedatzen dituzten arauak beteko dira”. Jarraian, laugarren apartatuan, unibertsitate pribatuetan zentro propio gisa integratzea edo unibertsitate publikoetara edo pribatuetara atxikitzea agintzen da».

74. **Azterketarekin jarraitzeko, aipatu behar dugu ULO unibertsitatea eta unibertsitate-zentroak sortzeari, aitortzeari, baimentzeari eta egiaztatzeari buruzko maiatzaren 29ko 240/2015 Errege Dekretuaren bidez garatu dela. Dekretu horretan arautzen dira unibertsitate pribatuen aitorten, funtzionamendu eta araubide juridikorako baldintzak eta betekizunak.**
75. **Errege Dekretuaren 3. artikuluekin bat eginez, «unibertsitate publikoen sorrera eta aitortpena lege bidez egingo da, Unibertsitate**



Politikaren Konferentzia Nagusiak txostena eman ondoren, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren (abenduaren 21eko 6/2001) 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz». ULOren 4.3. artikulua aplikatuz, errege dekretu horretan xedatzen dira unibertsitateak sortzeko eta aitortzeko oinarritzko betekizunak. Betekizun horietan zehaztuko dira unibertsitateek ULOren 1.2. artikuluan xedatutako funtzioak betetzeko behar diren bitarteko eta baliabideak.

76. **Beraz, onartuta geratzen da hezkuntzan eskumena duten autonomia-erkidegoek eskumena izango dutela bere lurraldean ezarriko diren unibertsitate pribatuak ere aitortzeko Batzar Legegilearen lege bidez. Hau da, ez dago zalantzatan EAEk eskumena duenik arau-ekimen hau egiteko (lege moduan izanda ere). Eskumen hori, era berean, Konstituzio Auzitegiak onartu du. Haren arabera, Espainiako Konstituzioaren 27.6. artikulua pertsona fisikoei edo juridikoei ikastetxeak sortzeko aitortzen dien oinarritzko eskubidearen adierazpena da ULOren 5.1. artikulua (azaroaren 29ko 223/2012 KAE eta ekainaren 5eko 131, 158, 159 eta 160/2013 KAE).**
77. **Aurreproiektuaren estatuko araudi-esparru erreferenteari dagokionez, zalantzarik gabe, ULO da oinarritzko araua, eta, arau horretatik, berariaz azpimarratzen ditugu azaldu ditugun manuak.**
78. **ULOk zehatz-mehatz eta ikastetxeak sortzeko askatasunaren konstituzio-printzipioa errespetatuz arautzen ditu unibertsitate publiko zein pribatuen aitortzerako, funtzionamendurako eta araubide juridikorako baldintzei eta betekizunei buruzko alderdi nagusiak.**
79. **5. artikulua arautzen du unibertsitate pribatuak eta unibertsitate-zentro pribatuak sortzeko prozedura, eta 1. zenbakian xedatzen du «pertsona fisikoek eta juridikoek unibertsitate pribatuak edo unibertsitate-zentro pribatuak sortu ahalko dituztela Konstituzioaren 27. artikulua 6. apartatuari jarraikiz, konstituzio-printzipioak errespetatuz eta lege honetan eta berau garatzekoetan estatuak eta autonomia-erkidegoek beren esparru eskudunetan xedatzen dituzten arauak betez».**
80. **Aurretik aipatutako 420/2015 Errege Dekretuak ULO garatzen du, eta, beste alderdi batzuen artean, unibertsitate pribatuak aitortzeko beharrezkoak izango diren gutxieneko ikastetxe kopurua eta baliabide materialak eta giza baliabideak xedatzen ditu (manuak oinarritzkoak dira, «Eskumen-tituluari» buruzko azken xedapenetatik lehenengoan jasota dagoen moduan). Errege Dekretu horren II. eranskinean**



aurreikusita daude Osasun Zientzietako irakaskuntzetarako betekizun bereziak (bermeak), tartean, fisioterapiako irakaskuntzak, eta horiek dira aurreproiektuak aitortuko duen unibertsitatean eskaini nahi direnak.

81. **Horrez gain, Unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua eta bere aldaketak (420/2015 Errege Dekretuak ere Errege Dekretu horren manu batzuk aldatzen ditu) ere kontuan hartu behar dira.**
82. **Horrekin guztiarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 19ko 274/2017 Dekretua onetsi zuen, gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa (gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-tituluen ziurtapena berritzeko prozedura eta epeak ezartzen dituen urriaren 16ko 205/2012 Dekretua indargabetu zuena).**
83. **Autonomia-erkidegoan, lege nagusia da Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea (otsailaren 25eko 3/2004). EAEko unibertsitate-sistema antolatzeari buruzko IV. tituluaren 61. artikulua arabera, Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio unibertsitate pribatuak aitortzea eta, hala dagokionean, aitorpena baliogabetzea.**
84. **108. artikulua, unibertsitate ez publikoei buruzko VIII. tituluko lehenengoak, ezartzen duenaren arabera, «edozein pertsona fisikok edo juridikok sustatu ahal izango du publikoak ez diren unibertsitateen aitorpena, eta unibertsitateen oinarritzko legerian ezarritako muga edo debekuak baino ez ditu izango». Manu horretan, horrelako unibertsitateak sortzeko baldintzak zehazten dira. Era berean, xedatzen duenez, «publikoak ez diren unibertsitateek berezko nortasun juridikoa izango dute, sustatzaileenaz bestekoa». Jarduerak hasteko baimena eman aurretik egiaztatu beharko da betekizun hori betetzen dela. 109. artikulua erekin bat eginez, unibertsitate pribatuak lege bidez aitortuko dira.**
85. **Prozedurari dagokionez, Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (urriaren 1eko 39/2015) aurreikusitakoa ere kontuan hartu behar da.**




III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

A) Ohar orokorrak

86. **Unibertsitate pribatu bat (EUNEIZ Unibertsitatea) aitortzeko lege-aurreproiektuari buruzko kontsultak egin dira, azaldu ditugun araudi-parametroen esparruan.**
87. **Aurretiazko ohar gisa jakinarazten dugu hauxe: nahiz eta UL0ren 4.5 artikulua berariaz eman izaera eratzailea unibertsitate pribatuen aitortenari, 232/2012 KAEk (UL0ren aurkako inkonstituzionaltasun-errekurtsoan emandakoa) eztabaida sortu zuen doktrinaren ganean, unibertsitate pribatuak aitortzeko legeei UL0k diseinatutako sisteman dagokien funtzioa aztertu zuenean (10. OJ):**

Unibertsitate publikoak sortzeko, botere publikoek ordezkatu ezin den borondate-ekimena gauzatu behar dute, eta, horretarako, legegile organikoak lege-erreserba bat ezarri du, baina, unibertsitate pribatuak sortzea, aldiz, Espainiako Konstituzioaren 27.6. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona fisikoei edo juridikoei dagokie (UL0ren 5.1. artikulua), eta, beraz, aitorten-lege bereziak ez du tasun eratzaile hori. Beraz, aitorten-legeak ez du izaera eratzailearik (kasu horretan, ezingo litzateke albo batera utzi), eta, ondorioz, baimen-izaera du, eta izaera hori ez du aldatzen legegilearen esku-hartzeak. Estatuko gobernuak da unibertsitate pribatuak eta publikoak sortzeko eta aitortzeko oinarritzko baldintzak ezartzen dituenak (UL0, 3.2. artikulua), eta, edonola ere, unibertsitate publiko eta pribatuentzat beharrezkoa da autonomia-erkidegoek ematen duten derrigorrezko baimena izatea jarduerekin hasi aurretik; araudian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren ematen da (UL0, 4.4. artikulua).

88. **Transkribatutako lerrokadaren azkeneko zatian, Konstituzio Auzitegiak honakoa dio: «Azken finean, ekainaren 28ko 31/2010 KAEan adierazi genuen modura (...) estatuak arautu behar du unibertsitateak sortzeko eta aitortzeko erabakiak hartuko diren esparru juridiko orokorra». Gainera, aurrekoa dela eta, «politika legegileko auzia da» autonomia-erkidegoek eman beharreko administrazio-baimena jaso aurretik aipatuaren antzeko aitorten-lege bereziak beharrezkoak diren edo ez**




zehazteko ardura autonomia-erkidegoei dagokien erabakitzea, eta «ez dagokio auzitegi honi auzi hori epaitzea, ezpada autonomia-eskumenak urratzen direla».

89. **Ekainaren 5eko 131/2013 KAEk (ULOren manu batzuen aurka jarritako inkonstituzionaltasun-errekurtsoan emandakoa baita ere) hamargarren oinarri juridikoan gogorarazten du aitorpen-lege bat eskatzea «ez dela gauza hutsala, izan ere, legegile organikoak ezarri duen moduan, aitorpenak irakaskuntzako eta ikerketako kalitatea bermatzeko balio du, eta, orokorrean, unibertsitate-sistema osoarena, baita unibertsitateek legegile organiko berak goi-mailako hezkuntzan esleitu dizkien funtzioetarako beharrezko diren bitartekoak eta baliabideak dituztela ziurtatzeko ere».**
90. **Batzordeak kontsultan egin duen esku-hartzean, ekimen legegileak erreferentziako araudi-esparrua betetzen duen edo ez analizatu da. Premiaren eta egokitasunaren azterketa (edonola ere, unibertsitatea aitortzeko beharrezkoa dena) zeharka ondorioztatu da prozeduran esku hartu duten organo espezializatuak egindako txostenetan oinarrituz; horiek, era berean, idazketa-prozedurari buruzko irizpenaren apartatuan azaldu ditugu.**
91. **Gainera, proiektatutako araubideak egiaztapen bikoitzeko sistema du: unibertsitatearen sortzeko behar den egiaztapena eta jarduera hasteko baimenaren aurreko egiaztapena.**
92. **Lehenengo egiaztapena 420/2015 Errege Dekretuaren I. kapituluko 1. atalean jasotako oinarritzko alderdiei buruzkoa da («Unibertsitateak sortzeko eta aitortzeko oinarritzko baldintzak»); 4. artikulua da atal horretako lehena, eta baldintzok 5.etik 11.era arteko artikuluetan garatzen dira.), eta hauxe xedatzen da bertan: «Unibertsitate publikoek eta pribatuak baliabide egokiak izan behar dituzte goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoa emateko eta abenduaren 21eko 6/2001 Lege organikoaren 1. artikuluan xedatutako funtzioak garatzeko. Baliabide egokitza hartuko dira unibertsitate orok helburuak betetzeko behar dituen gutxieneko baliabideak. Gutxieneko eskakizun horiek artikulua honetan eta hurrengoetan zehaztuta daude. Ondore horietarako, unibertsitate publiko bat sortzeko eta unibertsitate pribatu bat aitortzeko, honako baldintzak bete beharko dira: a) Titulazio ofizialen gutxieneko eskaintza-akademikoa izatea. b) Ikerketa-programazio egokia izatea. c) Irakasle eta ikertzaile nahikoa eta kualifikazio egokikoa izatea. d) Funtzioak gauzatzeko instalazio, bitarteko eta baliabide egokiak izatea. e) Antolamendu eta egitura egokia izatea. f) Zerbitzu-prestazioa eta jardueren jarraitutasuna bermatzea, 9. artikuluan araututakoaren**



arabera. g) Estatutuak, araubide juridikoa eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauak abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan, autonomia-erkidegoaren araudian eta Errege Dekretu honetan xedatutakoekin bat datozela bermatzea».

93. **Betekizun horiek bat datoz Unibasqek aztertutako eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrak prozeduran egindako txostenetan egiaztatutako alderdiekin, irizpenari buruzko apartatuan adierazi dugun moduan. Azkenik, organo biak unibertsitatea aitortzearen alde agertu ziren; hasierako kontrako jarrera erakunde eskatzailea dokumentazio osagarria aurkeztearekin aldatu zen.**
94. **Baldintzak betetzeari buruzko bigarren egiaztapena unibertsitatea martxan jartzeko baimen-prozedura izapidetzen denean egin behar da, eta hori bat dator 420/2015 Errege Dekretuaren I. kapituluaren 2. atalean («Jarduerak hasteko baimena») arautuarekin. Aurreproiektuaren 3. artikuluan arabera, une horretan egiaztatuko da «erakunde titularrak irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerei buruz hartutako konpromisoak betetzen dituen, eta, bereziki, beharrezko diren inbertsioak egin dituela azpiegituretan, baimendu daitezkeen irakaskuntza guztiak eskaini ahal izateko». Era berean, aurreproiektuaren 3. artikuluen 2. zenbakiaren arabera, «Eusko Jaurlaritzak egiaztatuko du lege ezarritako gutxieneko baldintzak bete direla, besteak beste, irakasleei eta ikertzaileei dagozkienak, eta, gutxienez, gradu eta masterretako zortzi titulu ofizial lortzera bideratutako ikasketa-planak egiaztatu eta akreditatu direla. Titulu horiek, aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera emango dira».**
95. **Proposatutako arauaren mailari dagokionez, egiazta dezakegu ULoren 4. artikuluan xedatua betetzen duela, eta, horren arabera, unibertsitate pribatuaren aitorpena ezarriko diren erkidegoko batzarraren lege bidez egingo da (kasu honetan, Eusko Legebiltzarra).**
96. **Halaber, EUSLren 61. artikuluko IV. tituluan jasota dago Eusko Legebiltzarrari modu eksklusiboan dagokiola unibertsitate pribatuak aitortzea, eta, hala badagokio, aitorpen hori ezeztatzea. Eta 108. artikuluan (VIII. titulua), berriz, edozein pertsona fisikok edo juridikok sustatu ahal izango duela publikoak ez diren unibertsitateen aitorpena, eta unibertsitateen oinarritzko legerian ezarritako muga edo debekuak baino ez dituela izango.**



97. **EUNEIZ unibertsitatearen erakunde sustatzaileari dagokionez (Eusteiz 2018 SAU), eskuragarri ditugun datuak dira kanpoko organoen txostenetan jasotakoak eta proposatutako arauaren hitzaurrean laburbildu direnak.**
98. **Horri dagokionez, nolabaiteko nahasmendua sortzen du sozietate horrek EUSES-UdG/ EUSES-URVko (*Escola Universitària de la Salut i l'Esport, Universitat de Girona*) eta Tarragonako *Universitat Rovira i Virgili* atxikia) eta ENTI-UB-ko (*Escola de Noves Tecnologies Interactives, Bartzelonako Universitat de Barcelona*) atxikia) irakasle eta ikertzaile taldeekin duen harremanak, hitzaurrean berariaz aipatzen baitira «EUNEIZ Unibertsitatearen sustatzaile gisa».**
99. **Aurrekoarekin lotuta, idazketa-prozedurari buruzko irizpen-apartatuan azaldu den moduan, Unibertsitate Politikako Konferentzia Orokorren txostenak aitorpen-eskaeran azaldutako «Eredu akademikoa eta irakaskuntza-eskaintza» aztertzean, honakoa dio: «Gradu eta masterren eskaintza-akademikoak zati batean bat dator aipatu Kataluniako ikastetxe atxikiek gaur egun eskaintzen dutenarekin, eta, ikastetxe horiek dira babesak eskainiko diotenak proiektu akademikoari».**
100. **Beraz, beharrezkoa da unibertsitate-eredua eta Kataluniako ikastetxe horiekin izango duen harremana argitzea, izan ere, ikastetxe horiek proiektuaren sustatzaile gisa eta unibertsitatearen proiektu akademikoaren euskarri gisa agertzen dira, baina ez da zehazten babes hori nolakoa izango den. Zalantza horiek argitu egin behar dira, ez dadin iradoki unibertsitatea beste unibertsitate batzuei atxikitako zentroa denik, izan ere, kasu horretan, analisi honetan aintzat hartu denaz bestelako araubide juridiko espezifiko baten mende legoke.**
101. **Aztergai dugun eremuan, gure iritzian, forma eta edukian, oro har, proiektuak deskribatutako araubide-esparruaren oinarritzko eskakizunak betetzen ditu, ondoren egingo ditugun ñabardurekin.**

B) Artikuluei buruzko oharra


102. **Aurreproiektuaren egitura unibertsitate pribatuak aitortzeko beste erkidego-lege batzuen oso antzekoa da. Berriena dira CUNEF unibertsitate pribatua aitortzen duen Madrilgo autonomia-erkidegoaren martxoaren 27ko 6/2019 Legea eta Hespérides unibertsitate pribatua aitortzen duen Kanariar Uharteetako apirilaren 9ko 9/2019 Legea.**



103. **Aurreproiektuaren edukia ia hitzez hitz datorrela bat CUNEF Unibertsitatea aitortzeko Madrilgo autonomia-erkidegoko 6/2019 Legearen testuarekin, izan ere, unibertsitate publiko bati (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseari) atxikitako unibertsitate pribatu gisa agertzen da.**
104. **EAEn, aurrekari berriena maiatzaren 30eko 4/1997 Legea da, «Mondragon Unibertsitatea» aitortzen duena, eta, orain proiektatutako arauak, zati batean, horren egiturari jarraitzen dio.**
105. **1. artikuluan, EAEn ezarriko den unibertsitatea aitortzen da, baina ez da egoitza zehazten, unibertsitatearen bereizgarrietako bat ezagutzea eragotziz.**
106. **Artikulu horretako 3. zenbakian, alferrik errepikatzen da Espainiako Konstituzioaren 20.1.c) artikuluan (katedra-askatasuna), eta, berariaz, unibertsitateentzat, ULoren 2.3. artikuluan eta EUSL-ren 4.1. artikuluan xedatzen den askatasun akademikoaren printzipioa; eta, bereziki, unibertsitateen antolamendu- eta funtzionamendu-arauei lotuta, ULoren 6.5. artikuluan jasota egoteaz gain, 420/2015 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ere jasota dago («Estatutuak edo, unibertsitate pribatuen kasuan, unibertsitatearen jardura eta autonomia arautu behar duten antolamendu- eta funtzionamendu-arauak bat etorri behar dira konstituzio-printzipioekin, eta guztiz eta eraginkortasunez errespetatu eta bermatu beharko dute katedra-, ikerketa- eta ikasketa-askatasunetan gauzatzen den askatasun akademikoaren printzipioa»).**
107. **ULoren 6.5. artikulua arabera (1. artikulua 3. zenbakia), unibertsitatearen antolamendu- eta funtzionamendu-arauak unibertsitate publikoen estatutuen onespenez araubidearen menpe egongo dira (legezkotasun-kontrola egin ostean, kasu honetan, Eusko Jaurilaritzak onetsi beharko du).**
108. **Zenbaki horretan, ULoren 2.3 artikulua aipatzen da oker (unibertsitate-autonomia ikuspegi orokorretik aztertzen duena), izan ere, kasu honetan, zehatzagoa da unibertsitatearen araubide juridikoari buruzko 6.5. artikulua aipatzea. Gainera, «Euskal Autonomia Erkidegoaren gobernu» aipatzen da, «Eusko Jaurilaritza» beharrean.**




109. **3. artikuluan, unibertsitatea martxan jartzeko baimena arautzen da, eta, 1. zenbakiaren arabera, baimen hori Eusko Jaurlaritzak emango du dekretu bidez, unibertsitateak eskaera egin ondoren, eta unibertsitateen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak proposatuta. Horrez gain, aurretik egiaztatu beharko da erakunde titularrak bere konpromisoak eta lege ezarritako gutxieneko betekizunak bete dituela (2. zenbakia).**
110. **Baimena emateko organo eskudunari dagokionez, ULoren 4. artikuluko 4. zenbakiaren arabera, unibertsitatea jarduten hasteko baimena «autonomia-erkidegoaren organo eskudunak» emango du, 3. zenbakian eta sorrera-legean xedatutako eskakizunak bete direla egiaztatu ondoren (420/2015 Errege Dekretuaren 12. artikuluan antzekoak xedatzen dira).**
111. **EAEn, organo eskudun hori EUSLren 109.3. artikuluan dago zehaztuta, eta ez da beharrezkoa Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onestea. Xedapen horren arabera, unibertsitate-gaietan eskumenak dituen sailburuak erabakiko du, agindu bidez, unibertsitatearen jardueren hasiera; sei hilabeteko epea izango du horretarako, unibertsitatea onartzeko legea indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Horretarako, ordea, «aipatutako epearen barruan bere titulu ofizialak homologatu beharko ditu eta gainerako legezko eskakizunak bete dituela egiaztatu».**
112. **Aurrekoarekin bat eginez, EUSLren 62.2.b) artikuluan jasota dago, unibertsitateen arloan eskuduna den sailaren eskudantzien artean dagoela «unibertsitateen jardueren hasiera baimentzea, indarrean dagoen legerian eta sortze-legean aurreikusitako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren».**
113. **Beraz, maila bereko bi arauen artean (proiektua eta EUSL) ezberdintasunak daude unibertsitatea martxan jartzeko baimena eman behar duen organo eskudunean. Espedientean, ez da azaldu edo ez da justifikatu zein den kasu honetan hautatutako aukera, eta ez da berariaz indargabetu EUSLren 62.2. artikulua b) apartatua.**
114. **EAEko unibertsitate-sistema arautzen duen arau orokor bat dagoela kontuan hartuz (kasu honetan, EUSL, oinarritzko araudi-esparrua betetzen duena eta unibertsitate pribatuak martxan jartzeko baimena eman behar duen organoa identifikatzen duena), azalpenik eman ezean, hasiera batean, hura errespetatzea eta lehenestea komeni da, egungo**



disfuntzioak ez sortzeko (beharbada nahi gabe eragin dira, eta ekidin daitezke), eta, halaber, sistema koherentea dela eta etorkizunean ere hala izango dela bermatzeko.

115. **Aurreproiektua EUSLren 109.3. artikuluekin kontrastatzean egiaztatu da, era berean, aurreproiektuaren testuan ez dagoela berariaz jasota zein epetan eman beharko lukeen baimena Eusko Jaurlaritzak; EUSLren manu horren arabera, sei hilabetekoa litzateke, aitorpen-legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita, betiere epe horretan egiaztatzen bada eskakizunak bete eta tituluak homologatu direla.**
116. **Baimen horri dagokionez, 420/2015 Errege Dekretuak (EUSL baino geroagokoak) 12. artikuluen 1. zenbakian xedatzen du «autonomia-erkidegoko organo eskudunak emango duela» unibertsitatea jardunean hasteko baimena (unibertsitatea sortzeko edo aitortzeko aplikatu beharreko arauetan ezarritako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren). Ondoren, 2. zenbakian, adierazten da baimen-prozedura interesdunak eskatuta hasiko dela, «eta gehienez ere sei hilabete iraungo duela». Zehazten duenaren arabera, «epe hori igarotzean jarduerarekin hasteko baimena edo ukoa eman ez bada, administrazio-isiltasunagatik baimenduta geratuko da (...)» (gerora indargabetu zen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin bat eginez; gaur egun APELren 24. artikulua da horren baliokidea).**
117. **Beraz, EUSL eta 420/2015 Errege Dekretua bat datoz; sei hilabeteko epea ezartzen dute unibertsitatea martxan jartzeari buruzko baimenaren prozedura izapidetzeko eta ebazteko. 420/2015 Errege Dekretuaren 12. artikuluan, prozedura horri buruzko xehetasun gehiago daude jasota, eta interesdunak eskatu ondoren hasiko dela adierazten da.**
118. **Berretsi behar dugu, EUSLk baldintza bat jartzen duela aurreikusitako sei hilabeteko epean baimena eraginkor izan dadin: unibertsitatearen titulu ofizialen homologazioa eskuratu behar da epe horretan, eta gainerako lege-eskakizunak betetzen direla egiaztatu behar da (xehetasun horiek, aldiz, ez daude jasota 420/2015 Errege Dekretuan, ezta proposatutako testuan).**
119. **EUSLn ezarritako baldintza horiek ikusirik, proposatutako legea eraginkorra izanez gero, aitorpen-legea indarrean jarri eta sei hilabete igaro ondoren betekizun horiek betetzen ez badira prozeduran gertatu**




daitekeenari buruz hausnartu dugu. Beraz, epearen zenbaketa ez litzateke hasiko, harik eta aipatu baldintzak bete arte, aurreproiektuaren 3. artikuluko 3. zenbakian xedatzen den iraungipen-epearekin.

120. **Proiektatutako arauan ez da ezer esaten kasu horiei buruz, eta ez dakigu EUSLnaz bestelako araubide bat diseinatu delako den. Argitu beharreko kontua da izan.**
121. **Edonola ere, argi dago baimena emateko epea honela interpretatu daitekeela indarrean den araudiari jarraikiz baimena izapidetzeko garaian: aipatu arauetan ezarritako gehieneko epea. Epe hori testuan zehaztea komeni da, arau erreferenteekin alderatzean adierazi diren zalantzak argitzeko egin behar diren zehaztapenak jasota.**
122. **Azkenik, eta legegintza-teknikaren ikuspegitik (aurrerago xehe azalduko dugu, irizpenaren beste apartatu batean), adierazi behar dugu aurreproiektuaren 3.3. artikuluko bi lerrokadetan unibertsitatearen aitorpena iraungitzeari buruz xedatzen direnak, ikuspuntu sistematiko batetik, bereizita tratatu behar direla, hau da, manu espezifiko batean. Bestela, artikuluen amaieran egon beharko lirateke, 4. eta 5. zenbakietan adierazita.**
123. **Koherentzia sistematikoarekin jarraituz, eta kontuan hartuz unibertsitatea martxan jartzea funtzionamendua eta garapena egiaztatzen duten bermeak ematearen mende dagoela, gure ustez, 6. artikuluen edukia, 3. artikuluan jaso beharko litzateke (unibertsitatea martxan jartzeko baimenari buruzkoa), edo, bestela, manua, 3. artikuluen ondoren kokatu. Edonola ere, 6. artikuluko 1. zenbakian esaten dena 3. artikuluan jasotakoa da.**
124. **7. artikuluan, unibertsitateak aplikatu beharreko arauak eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko egin beharreko ikuskaritza arautzen da. 5. zenbakian, unibertsitateen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak detektatutako akatsak zuzentzeko egingo duen eskaera dago jasota, baina ez dago zehaztuta zein den zuzenketak egiteko epea, modu orokorrean aipatzen baita: «Unibertsitateari epearen barnean egoera erregularizatzeko eskatu dio». Aurrekoarekin lotuta, epea bukatu eta eskakizuna ez betetzearen ondorioak zehazten dira; aitorpena baliogabetzea.**
125. **Segurtasun juridikoari dagokionez eta eskakizuna epearen barne ez betetzearen ondorioak kontuan hartuz, beharrezkoa da epe hori**




zehaztea, edo bestela, unibertsitateari egoera erregularizatzeko epe bat emango zaiola zehaztea, detektatutako akatsaren larritasunaren arabera izango dena.

126. **8. artikulua titulartasuna eskualdatzeari edo lagatzeari buruzkoa da, baina ULoren 5.3. artikuluan horri buruz xedatutakoa errepikatzen da, berezitasunik gehitu gabe, ezpada egintza edo negozio juridiko horiek jakinarazi behar zaizkion organoa, alegia, unibertsitate-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila (hori izan beharko litzateke manu horren eduki bakarra).**
127. **2. zenbakian esaten dena (aurretiaz hitzez hitz jasota dagoena CUNEF unibertsitate pribatua (unibertsitate publiko bati atxikia) aitortzeko martxoaren 27ko Madrilgo Autonomia Erkidegoaren 6/2019 Legean) eta 1. zenbakia esaten dena ez daude lotuta. Hori dela-eta, «2. Unibertsitatea instalatuta dagoen lursailak eta eraikinak erabilera horrekin lotuta geratuko dira epe mugagabeen, Euskal Autonomia Erkidegoak unibertsitatearen jarduerak bertan behera uzteko edo haren kokapena eta instalazioak aldatzeko baimenik ematen ez duen bitartean. Ondasunak unibertsitate-erabilerara lotzea inskribatu egin beharko da Jabetzaren Erregistroan, jarduerari ekiteko edo martxan jartzeko baimena baino lehen, hain zuzen».**
128. **Ez da erraz txertatzekoa xedapen hori, legeak aitortuko duen unibertsitate pribatuari propio zuzendutako agindu izateko. Unibertsitate publikoetan lotura izan lezake jabari-ondasunekin eta lursailen nahiz instalazioen jabari publikoari eragitearekin (EUSLren 100. artikuluko 2. zenbakiari jarraikiz: «Unibertsitate publikoaren ondasun eta eskubideak, zerbitzu publikoari atxikiak daudenak, jabari publikoko ondasunak direla joko da»). Baina azalpenik gabe, ez dakigu zein lotura izan dezakeen hizpide dugun kasuan, ezpada beste eremu batekoak direla, hirigintzakoak, kasu, baina, gai hori ez da prozeduran jorratu.**
129. **EUSLren 100. artikulua ondareari buruzkoa da, eta bakarrik unibertsitate publikoei eragiten dien kapitulu batean dago azalduta. 1. lerrokadan, unibertsitate publikoei dagokienez, hauxe dago xedatuta: «1. Ondarea eskuratu, norabaiterako izendatu eta kudeatzeari dagokiona arau hauen pean egongo da: lege hau eta unibertsitateen gaineko oinarritzako legeria, Euskadiko Ondarearen Legea, administrazio publikoen ondarea arautzen duen araudia eta unibertsitatearen estatutu eta aplikatzekoak diren gainerako barne-arauak».**



130. **Aurreproiektuaren 10. artikulua unibertsitatearen jarduerak ebaluatzeari buruzkoa da (ebaluazio hori Unibasqek egingo du) eta EUSLren 109. artikuluko 2. zenbakian xedatutakotik eratortzen da (unibertsitate pribatuak aitortzeari buruzkoa). Bertan, modu espezifikoan zehazten denez, «aitorpen-legeak unibertsitate berriaren jardura EAEko Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ebaluazioaren mende jarriko du».**
131. **Horrez gain, aztertutako aurreproiektuaren manu horrek, hitzez hitz errepikatzen du Unibasq arautzen duen 13/2012 Legearen 2.1. artikulua. Hori, teknikoki ez da zuzena.**
132. **Azkenik, lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan (lehenengoaren izenburua «Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna» da, eta bigarrenarena, «Euskal kultura ondarea eta euskara») egiaztatu dugu ez dela ezer berririk aipatu alor horietako printzipio orokorretan (EUSLn jasota daude), eta, gainera, aurreproiektuak ez duela ekarpenik egiten konpromiso espezifikoek bitartez.**
133. **Beraz, egiaztatu da, aurreproiektuaren lehenengo xedapen gehigarriaren edukiari dagokionez, EUSLren 6.1. artikuluen g) apartatuak, EAEko unibertsitate-sistemaren oinarritzko helburutzat jasotzen duela «gizarte- eta kultura-desparekotasunak gutxitzeko lan egitea eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko pausoak ematea, hala nahi duten eta gaitasuna duten pertsona guztiek unibertsitate-prestakuntza jasotzea ahalbidetuz». Eta 7. artikuluko m) apartatuan, EAEko unibertsitate-sistemaren antolamenduaren informazio-printzipioen artean dago «androzentrikoa ez den jakintza ekoizten laguntzea, unibertsitateek egoki iritzitako ekintza positiboko neurriak babestuz, emakumeei unibertsitatean sartzeko bidea errazteko eta emakumeak jakintza-arlo guztietan aritzea bultzatzeko».**
134. **Emakumeen eta gizonen artean egiazko berdintasuna egoteko helburua zehaztearen adibideak ditugu ULoren manu batzuetan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatutakoak), besteak beste, 27. artikuluan (unibertsitate pribatuetako gobernu- eta ordezkaritza-organoetan berariazko partaidetza- eta ordezkaritza-bermeak ezartzea agintzen da, gobernu- eta ordezkaritza-organo horietan bermatuta egon dadin «unibertsitate-komunitateko sektoreak partaidetza egokian ordezkaturik egotea, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izateko») eta 41.4. artikuluan («ikerketa-taldeek emakumeen eta**




gizonen presentzian oreka izatea sustatuko da esparru guztietan eta ibilbide profesional osoan»).

135. **Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eraginkortasunaren berme gisa, ULOn 27.bis artikuluan (2007ko aldaketan gehitu zen), Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusia arautzen da, eta honako funtzioak esleitzen zaizkio: «e) Unibertsitatean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruzko txostenen sortze- eta jarraipen-koordinazioa egitea».**
136. **Aurreproiektuaren bigarren xedapen gehigarriari dagokionez («Euskal kultura ondareari eta euskarari buruzkoa»), egiaztatu da hitzez hitz errepikatu dela EUSLren 3. artikuluko («Gizartearentzako zerbitzuak») 3. zenbakian xedatutako printzipio orokorra; unibertsitateek «euskal kultur ondarearen gaineko defentsa, azterlana eta sustapena bultzatuko dituzte, eta, bereziki, euskararena».**
137. **Euskarari buruz, EUSLren 2. artikuluan gehiago zehazten da konpromiso hori, eta EAEko unibertsitate-sistema honela dago definituta: «EAEko lurraldean egoitza duten eta etorkizunean sortu eta Eusko Legebiltzarrak onar ditzakeen unibertsitate guztien artean osatzen duten unibertsitate sistema»: Halaber, sistemaren barruan harremanak eta lankidetzak sustatuko dira euskararen kultura-esparruko lurraldeetan dauden edo euskararen erabilera sustatzeko etorkizunera begirako proiektuak duten unibertsitateekin. Horretarako, irakaskuntzako koordinazioa, ikerkuntza, jarduera kulturalak, eta unibertsitate horietako ikasleen eta irakasleen arteko mugikortasuna baliatuko dira, euskararen erabilera sustatzeko, guztia nazioen Europaren barruan. Lehentasunezko harremanak ezarriko dira Euskal Herrian kokaturiko gainerako unibertsitateekin».**


C) Legegintza-teknikaren arloko oharrak

138. **Igorritako testu zehatzari dagokionez, batzordeak komenigarritzat jotzen du zenbait ohar espezifiko egitea gai honetan, arau-produktu teknikoki osatuagoa eta, beraz, segurtasun juridikoaren printzipioari egokituagoa lortzen laguntzeko (Espainiako Konstituzioaren 9.3. artikulua).**
139. **Egin den azterketan, halaber, kontuan hartu dira Gobernu Kontseiluak lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 1993ko martxoaren 23ko erabaki bidez onartutako eta Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Garapen Autonomikoko sailburuak 1993ko apirilaren 6an**




emandako agindua betez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako irizpideak (aurrerantzean, irizpideak); horiek guztiak, aplikatu egin behar dira XOEPLn hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz. Horrez gain, egokiak diren beste ohar batzuk ere kontuan hartu dira, hain zuzen ere, arau-produktuaren kalitatea hobetzeko.

- 140. Lehenik eta behin, gaztelaniazko testuan, letra larrien erabilera bereziki berrikustea gomendatzen dugu, izan ere, letra larriak ez dira modu bateratuan erabili. Orokorrean, letra larri gehiegi eta modu irregularrean erabili dira: unibertsitateak orokorrean aipatzean edo unibertsitate publikoak edo pribatuak aipatzean; orain aitortutako unibertsitatea bera aipatzean (beste kasu batzuetan, 1.3. artikuluan, 3. artikuluan, 4. artikuluan eta hurrengoetan letra xehea erabili da); irakaskuntza-arloak aipatzean (hitzaurrearen hamargarren lerrokadan «Nuevas Tecnologías...»; «Compañía mercantil unipersonal» (hitzaurrean eta 1. artikuluan); unibertsitatearen fakultateak izendatzean (adibidez, 2.1. artikuluan, fakultateen arloak identifikatzeko letra larriak eta xeheak erabili dira: «Facultad de Ciencias de la Salud y Facultad de nuevas tecnologías interactivas»—; edo «Decreto» (3.1. artikuluan).**
- 141. Aurrekoarekin lotuta, eta ezagutzen ez dugun arrazoiren bat egon izan ezean, ustez, akronimoa ez denez, ez da beharrezkoa aitortu den unibertsitatearen izena letra larriz idaztea «Universidad EUNEIZ» izan beharrean, «Universidad Euneiz» izan daiteke.**
- 142. Horrez gain, arauetan, akronimoak erabiltzea saihestu behar da (adibidez, hitzaurreko hamaikagarren lerrokadan, «TICs» delakoak aipatzen dira, suposatzen dugu, «informazioaren eta komunikazioaren teknologiei» erreferentzia eginez).**
- 143. Era berean, arauak, izendapen ofizial osoarekin aipatu behar dira. Hitzaurrearen hamaseigarren lerrokadan, aldiz, ULOn aipamen generikoa egin da.**
- 144. Era berean, zenbaitetan erabili den «art.» laburduraren ordeztu (hitzaurrean hirugarren eta laugarren lerrokadetan, kasu), «artículo» hitz osoa erabiltzea gomendatzen dugu, hitzaurrearen beste lerrokada batzuetan egin den moduan.**
- 145. Hizkuntzaren erabilera ez sexistari dagokionez, egiaztatu dugu proiektua idaztean kontuan hartu dela irizpide hori. Hala ere, zati batzuetan ez da horrela**




jokatu, adibidez, hitzaurrean: bigarren lerrokadan «todos sus integrantes» erabili ordez, «todos los agentes integrantes» erabil liteke; hamahirugarren lerrokadan «acceso de los alumnos» adierazi da; hitzaurrearen hemezortzigarren lerrokadan eta 6.2. artikuluan, «los promotores de la universidad» esaten da, eta horren ordez, «la entidad promotora de la universidad» idatzi daiteke, eta 6.2. artikuluan horretan, «los integrantes de su comunidad universitaria» aipatzen dira. Era berean, 4.2. artikuluan, «los solicitantes» aipatzen dira («las personas solicitantes» beharrez); 8.1. artikuluan, «el nuevo titular», eta «del titular anterior» daude jasota (UL0ren 5.3. artikuluan aurreikusitako transkripzioa delako); azken xedapenetatik lehenengoan ere, unibertsitateen alorrean eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako saila «al titular» moduan adierazten da.

146. Aurreproiektuan, unibertsitateen arloan eskumenak dituen saila aipatzeko, «Gobierno Vasco»: «Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades» erabili behar da.
147. Ohar orokor horiek aipatu ondoren, jarraian, zorrotzak izan nahi gabe, honakoak aipatuko ditugu, testua modu egokian idatzita egon dadin eta hobeto uler dadin.
148. Hitzaurrean, araua aipatzeko «proyecto» idatzi da, eta bukatutako arau-produktu baten testua denez (bere onespina izapidetze prozesuan dagoela albo batera utzita), halaxe adierazi behar da. Bereziki, hamalagarren lerrokadan, «esta ley»-ren edukia aipatu behar da hurrengo lerrokadetan egiten den moduan; eta, era berean, hemezortzigarren lerrokada ere zuzendu egin behar da («procede aprobar el presente proyecto de ley»). Bederatzigarren lerrokadan, argitu egin behar da «impulsoras del proyecto» aipatzean, araudi-proiektuari (kasu horretan, zuzendu egin beharko litzateke) edo unibertsitate-proiektuari egiten zaion erreferentzia.
149. Hitzaurrearen lehenengo lerrokadaren azken zatian, errepikatzen den EAEko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua hitzez hitz jasotzeko, hauxe adierazi behar da: «de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30ª de la misma (...)». Proiektuaren 7.1. artikuluan ere, modu egokian aipatu behar da Espainiako Konstituzioaren artikulua hori («149.1.30ª artikulua»).
150. Laugarren lerrokadan, EUSLren 108. artikulua erekin batera, 109. artikulua ere aipatu behar da. Bertan xedatuta dago unibertsitate pribatuak lege




bidez aitortuko direla (eta, gainera, aurreproiektuaren arloan interesekoak diren beste aurreikuspen batzuk daude jasota).

151. **Bosgarren lerrokadaren bukaeran, zuzenagoa da «todas» kentzea eta haxe adieraztea: «al conjunto de las universidades que lo integran».**
152. **Zazpigarren lerrokadan, ULoren 4. artikuluan xedatutakoaren aipamena ez dator bat hitzez hitz manurekin, ez baitira unibertsitate pribatuak definitzen, baizik eta horien sorrera eta aitorpena. Adibidez, proposatzen dugu 4. artikuluan honakoa zehaztea: unibertsitate pribatuen aitorpena batzar legegilearen lege bidez egingo da (...).**
153. **Kapital sozietateen legearen testu bateginaren 13.2. artikuluekin bat eginez, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsi zena, hitzaurreko zortzigarren lerrokadan eta aurreproiektuaren 1. artikuluan zuzen adierazi behar da pertsona bakarreko merkataritza konpainiaren izena, honela: «EUSTEIZ 2018, S.A.U.» 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren manu horrekin bat eginez, pertsona bakarreko egoera mantentzen den heinean, sozietateak hori jakinarazi behar du (kasu honetan, azkenean, «S.A.U.» jarritz).**
154. **Bederatzigarren lerrokadaren azkenengo zatian, «impulsoras del proyecto» delakoei egindako erreferentzia kendu behar da, izan ere, esaldian, subjektua hasieran dago: “Los impulsores de «Universidad EUNEIZ”».**
155. **Jarraibideetako tabulazio-arauak betez, hitzaurreko hamaikagarren lerrokadako zerrendako *item-ak* letra xehearekin hasi behar dira, eta azken-aurrekoan «y» juntagailua gehitu behar da azkenarekin lotzeko (edo, bestela, bakoitzaren amaieran puntu bat jarri).**
156. **Paragrafo horretako hirugarren puntuan, «Proyecto EUSES-Udg y ENTI-UB» izeneko proiektua aipatzen da, hitzaurreko bederatzigarren lerrokadan aipatutako unibertsitateei atxikitako ikastetxeen akronimoei dagokiena (nahiz eta lehenengoa, osatuago adierazten den, «EUSES-Udg/EUSES-URV moduan»). Proiektu hori ez da aurretiaz aipatu, bederatzigarren paragrafoan azaldutakotik haratago. Proiektu horrek izen propioa izanez gero, komatxo artean adierazi beharko litzateke; gainera, edukiari buruzko laburpena jaso ahalko litzateke hitzaurrean.**
157. **Paragrafo horretan, baita ere, «Vitoria-Gasteiz» adierazi behar da, modu ofizialean.**



158. **Hamahirugarren paragrafoan, «Universidad EUNEIZ» aipatu aurretik, «la» determinatzailea idatzi behar da (beste pasarte batzuetan baita ere, besteak beste, bederatzigarren lerrokadan eta unibertsitate gisa aipatzen den xedapenen ataleko manuetan; horietan, komatxorik ez litzateke jarri behar).**
159. **Hamaseigarren paragrafoan, ULoren arabera, hauxe jaso behar da: «Asamblea legislativa de la Comunidad Autónoma en cuyo ámbito...».**
160. **Hitzaurrearen azken paragrafoa luzeegia da, eta bakarrik komak erabili dira puntuazioan. Gure gomendioa, puntu eta jarraia erabiliz bi esaldi idaztea edo bereizitako eta lokailu batekin lotutako bi paragrafo idaztea da.**
161. **Xedapen-atalari dagokionez, 1. artikuluan, zuzen adierazi behar da unibertsitatearen aitorpena, honela: «Se reconoce la Universidad Euneiz, promovida por la entidad Eusteiz 2018, S.A.U., como universidad privada del Sistema Universitario Vasco. Esta universidad tiene personalidad jurídica propia, ofrecerá enseñanza universitaria presencial y ejercerá las demás funciones que (...)».**
162. **Era berean, 1. artikuluan (beste manu batzuetan moduan), xedapenak hitzez hitz adierazi dira, nagusiki, ULokoak, proiektatutako araura egokitu gabe. Egokitzen hori egiteko, lehenik eta behin, gure gomendioa da 1. artikuluko 2. zenbakian (bertan xedatzen da unibertsitatea EAEn ezarriko dela eta «su ley de reconocimiento...» delakoak arautuko duela) zehaztea unibertsitatea «la presente ley» delakoak (edo «esta ley»-k) arautuko duela. Era berean, jada aipatu dugun moduan, 3. zenbakia aldatu beharko litzateke, Eusko Jaurlaritza aipatuz «el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco» beharrean.**
163. **2. artikuluko 2. zenbakiko azken paragrafoa zenbaki bereizi bidez eman beharko litzateke.**
164. **3. artikuluko 2. zenbakia unibertsitatea martxan jartzeko baimenari buruzkoa da, eta hiru mezu ematen ditu puntu eta jarraiz lotuta, baina, zenbaki bereizietan ematea merezi dute.**
165. **Berez, artikuluen edukiari dagokionez, zifra arabiarrez zenbakitutako lerrokadetan bereiztea aurreikusten dute irizpideek, eta zenbakiak, behar izanez gero, apartatuetan banatzea, horiek izendatzeko letra xeheak erabiliz ordena alfabetikoan. 5.2. artikuluan, aldiz, «el apartado**



anterior» aipatzen da, eta 10. artikuluan, «el apartado 1 del artículo 2 de la Ley 13/2012».

166. **7.5. artikuluan, osorik agertu behar da «Gobierno Vasco».**
167. **«Transmisión o cesión de titularidad» izenburua duen 8. artikuluan bi mezu daude: 1. zenbakia unibertsitatearen izaera juridikoa edo egitura aldatzen duten edo titulartasunaren eskualdaketa edo lagapena sortzen duten egintza edo negozio juridikoak egiteari buruzkoa da (ULOren 5.3. artikulua); eta 2. zenbakia, unibertsitatea kokatutako lursailetan aldi mugagabeen sortuko diren eraginei buruzkoa. Gure ustez, 2. zenbakiko edukia beste manu batean egon beharko litzateke (edo, bestela, 8. artikulua izenburua aldatu beharko litzateke).**
168. **9.2. artikuluan, «Parlamento Vasco» osorik idatzi behar da.**
169. **Bukatzeko, batzordearen ustez, azken xedapenetatik bigarreanean (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoan), komatxoak sobera daude.**

ONDORIOA

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharra kontuan hartu ostean, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokela, onetsia izan dadin.

Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2020ko azaroaren 20an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapen edo ebazpena batzorde honi komunikatu behar zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean (irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).

O. E.:



Jesús María Alonso Quilchano,
Idazkaria

Sabino Torre Díez,
Batzordeburua

Sinadura elektronikoa